BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2664

99/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, Urola Erdiko Industrialdea, S.A. sozietate publikoa xurgapen bidez azkentzeko baimena emateko dena.

2012ko martxoaren 13an egindako batzarretan, Urola Garaiko Industrialdea, S.A. eta Urola Erdiko Industrialdea, S.A. sozietate publikoen administrazio-kontseiluek bat egiteko prozesuari ekitea erabaki zuten.

Urola Garaiko Industrialdea, S.A. sozietateak Urola Erdiko Industrialdea, S.A. sozietatea xurgatuz gauzatuko da bat-egitea.

Xurgapen bidezko bat-egitea dela-eta, Urola Garaiko Industrialdea, S.A. sozietateak bere egingo du xurgatutako sozietatearen ondarea, aktiboa zein pasiboa.

Xurgapen bidezko bat-egiteak berekin ekarriko du Urola Erdiko Industrialdea, S.A. desagertzea; hori automatikoki egingo da, eta berehalako azkentzea ekarriko du. Aipatu azkentzearen kausa zuzena eta behinena bat-egitea da.

Sozietate xurgatzailea Urolako Industrialdea, S.A. deituko da aurrerantzean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 20.3 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko edo bere erakundeetako baltzu publikoak sortu eta desagerrarazteko eta eratutako baltzuetako partaide nagusi bilakatu ahal izateko edo partaide nagusi izateari uzteko, Jaurlaritzaren dekretua beharko da.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko maiatzaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Urola Erdiko Industrialdea, S.A. sozietatearen azkentzea onartzea; izan ere, sozietate hori Urola Garaiko Industrialdea, S.A. sozietateak xurgatu du.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko maiatzaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.